musikene

**Musikeneko Kudeatzaile Akademikoaren 15/2011 ebazpena, uztailaren 19koa, 2011-2012 ikasturterako irakasleak hautatzeko deialdia argitara ematen duena**

2011-2012 ikasturterako irakasle-beharrei erantzutearren, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak hautaketa-prozesu publiko bat onartu du "Jazz musikaren analisia" irakasgaian. Honako hauek dira prozesu horren

**OINARRIAK**

Lehenengoa.- **Deialdiaren xedea.-**

Deialdiaren xedea honako hau da: deialdi honetan ezarritako prozeduraren bitartez, I. Eranskinean zerrendatu den irakasle-lanpostua hornitzea, maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuaren ikasketa-planean araututako diziplinen arabera, bertan arautzen baitira maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoan (BOE 106, 2006ko maiatzaren 4koa) ezartzen diren goi mailako Musika Graduko ikasketa artistikoen oinarrizko edukia.

Bigarrena.- **Baldintzak**.-

Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) 18 urte beteak izatea.

b) Nazionalitatea
- Espainiar nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko herritarra izatea, edota Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko Itunen aplikazio-eremuan barne hartuta egotea, betiere langileen joan-etorri askea aplikatzekoa denean.
- Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kideetako herritarren ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik goragokoak izanik, haien kontura bizi badira.
- Halaber, Espainian legez bizi diren atzerritarrek parte hartu ahal izango dute, Europar Batasuneko Estatu kideetako herritarren baldintza berberetan. Kasu horretan, eskaerarekin batera, egoitza-baimena duela —aldi baterakoa edo iraunkorra— egiaztatu

**Resolución 15/2011, de 19 de julio, del Gestor Académico de musikene, por la que se hace pública la convocatoria de selección de profesorado para el curso 2011-2012**

Con el objeto de atender las necesidades de profesorado para el próximo curso 2011-2012 en la asignatura "Análisis de la música de jazz", el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, ha aprobado un proceso público de selección conforme a las siguientes

**BASES**

Primera.-**Objeto de la convocatoria.-**

Es su objeto la provisión por el procedimiento establecido en esta convocatoria, de la plaza de profesor/a que se relaciona en el Anexo I, conforme a las disciplinas reguladas en el plan de estudios del Real Decreto 631/2010, de 14 de mayo por el que se regula el contenido básico de las enseñanzas artísticas superiores de Grado en Música establecidas en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de Mayo, de Educación (BOE nº 106 de 4 de Mayo de 2006).

Segunda.- **Requisitos.-**

Los aspirantes deberán cumplir los siguientes requisitos el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes:

a) Tener cumplidos 18 años de edad.

b) Nacionalidad
- Tener la nacionalidad española o ser nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, o persona incluida en el ámbito de aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, en los que sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.
- Cualquier que sea su nacionalidad podrá también participar el cónyuge de los españoles y de los nacionales de otros estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintiún años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.
- Asimismo, podrán acceder en condiciones de igualdad con los nacionales de Estados miembros de la Unión Europea, los extranjeros residentes legalmente en España. En este supuesto, el ciudadano extranjero deberá acreditar, junto a su

beharko du atzerritarrak.

solicitud, estar en posesión del permiso de residencia, temporal o permanente.

c) Goi-mailako musika-titulua izatea edo graduatua, lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria izatea, edo legez horien baliokidetzat hartzen den beste edozein titulu izatea. Titulua atzerrian lortu badu, titulu hori homologatuta dagoela ziurtatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko du izangaiak. Martxoaren 15eko 303/2010 EDaren 20.5 artikuluaren arabera, kontutan hartuko dira baita ere derrigor titulua ez duten hautagaitzak, beti ere beharrezko den kualifikazio profesionala erakusten dutenean eta beren ekimena arlo horretan garatzen dutenean, edo atzerriko nazionalitatea dutenean, bere kualifikazioarekin eta hezkuntza-sistemarekin bat etorriz beti ere.

c) Estar en posesión del título superior de música, graduado, licenciado, arquitecto, ingeniero o cualquier otra titulación superior que tenga reconocida legalmente su equivalencia con éstas. En el caso de titulaciones obtenidas en el extranjero el aspirante deberá aportar la credencial que acredite su homologación. En función del art. 20.5 del RD 303/2010, de 15 de marzo, se considerarán igualmente las candidaturas de profesionales no necesariamente titulados que ostenten la necesaria cualificación profesional y desarrollen su actividad en el ámbito laboral o tengan nacionalidad extranjera, de conformidad con su cualificación y las necesidades del sistema educativo.

d) Egitekoak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.

d) No padecer enfermedad o defecto físico que impida el normal ejercicio de la función docente.

e) Disziplinazko espediente baten ondorioz edozein Administrazio Publiko edo Autonomia Erkidegotako organo konstituzional edo estatutarioetatik kanporatua ez izana, edo epai-erabaki baten ondorioz desgaikuntza absolutu edo berezirik ez izatea lanbide edo kargu publikoetan aurretik betetzen zituen antzeko eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izatekotan, kanporatua ez izana edo egoera baliokidea, edo disziplinazko zigorrik jaso ez izana edo baliokidea, bere Estatuan, baldintza beretan, enplegu publikoarako sarbidea eragozten diona.

e) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial para ejercer funciones similares a las que desempeñaban previamente. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos, el acceso al empleo público.

Hirugarrena.-**Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak**.-

Tercera.-**Solicitudes y documentación a aportar**.-

Hautaketa-prozedura honetan parte hartu nahi dutenek deialdi honen eskaera-orria bidali beharko dute “MUSIKENE” Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegira, bertako webgunean eskuragarri (www.musikene.net); horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Indarrean dagoen NANaren edo Pasaportearen kopia.
- b) Deialdi honetan parte hartzeko eskubidea ematen duten tituluen kopia.
- c) Irakaskuntza-proiektua; proiektu horretan barne hartuta egongo dira nahitaez eduki eta helburu nagusiak, egoki justifikatuta.
- d) Curriculum vitae

Quienes tengan interés en participar en el presente procedimiento selectivo deberán remitir al Centro Superior de Música del País Vasco "MUSIKENE" la instancia cuyo modelo está disponible en la página web de Musikene (www.musikene.net), a la que deberán acompañar la siguiente documentación:

- a) Copia del D.N.I. o del Pasaporte en vigor.
- b) Copia de los títulos que habilitan para la participación en la presente convocatoria.
- c) Proyecto docente, que incluirá necesariamente los contenidos y objetivos más relevantes, debidamente justificados.
- d) Currículum vitae

Musikenek hautagaiei aurkeztutako merituen froga dokumentala eska ahal diezaieke.

Musikene podrá reclamar de los candidatos la prueba documental de los méritos alegados.

musikene

Laugarrena.- **Eskaerak aurkezteko lekua eta epea**.

Izangaiek eurek aurkeztu ahal izango dituzte deialdi honetako aurreko oinarrian aipatutako eskaera eta agiriak EHAAn argitaratze egunetik hasi eta 10 egun baliodunen epean, eguerdiko 13.00ak baino lehen, behean adierazitako helbidean, astelehenetik ostiralera eta 10.00etatik 13.00etarako ordutegian.

Era berean, posta ziurtatuaren bitartez bidali ahal izango dira eskaera eta eskatzen diren agiriak. Azken kasu horretan, postetxeko igorpen-data hartuko da kontuan eskaera onartzeko edo baztertzeko.

**MUSIKENE (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia)**
**Irakasleak Hautatzeko Prozedura, 2011-2012 ikasturtea**
**Miramar Jauregia**
**Mirakontxa pasealekua, 48**
**20007 DONOSTIA**

Hala nahi duten hautagaiek eskaera eta dokumentazioa korreo electronikoz bidali ahal izango dute jaso izanaren adierazpenaz honako helbidean: zuzendaritza@musikene.net.

Bosgarrena.- **Izangaiak onartzea**.

1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda argitaratuko du Musikeneren Zuzendaritzak, eta baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoien berri emango du ikastegiko iragarki-oholean eta webgunean.

2.- Honako hauek baztertzeko arrazoiak izango dira: eskaera ezarritako epetik kanpo aurkeztea, Hirugarren oinarriko ataletan aipatzen diren agiriak ez aurkeztea eta bigarren atalean zehazten diren hainbat eskakizun ez betetzea.

3.- Baztertzeko erabakiaren aurka, hiru egun izango dira erreklamazioak aurkezteko, iragarkia Musikeneren iragarki-oholean eta webgunean jartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Cuarta.- **Plazo y lugar de presentación de solicitudes.**

Los aspirantes podrán entregar personalmente la solicitud y la documentación a que se ha hecho referencia en la base anterior de la presente convocatoria, antes de las 13,00 horas dentro de los diez días hábiles contados a partir de la fecha de publicación en el BOPV, en la dirección abajo indicada, en horario de 10,00 a 13,00 y de lunes a viernes.

De igual modo, la solicitud con la documentación exigida podrá remitirse por correo certificado. En este último supuesto, la fecha a tener en cuenta para la admisión o no de la solicitud será la del depósito del remitido en la oficina de correos.

**MUSIKENE (Centro Superior de Música del País Vasco)**
**Procedimiento de Selección de Profesorado Curso 2010-2011**
**Palacio Miramar**
**Paseo Miraconcha, 48**
**20007 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN**

Los candidatos que lo deseen podrán hacer llegar su solicitud y la documentación exigida por correo electrónico con acuse de recibo a la siguiente dirección: zuzendaritza@musikene.net.

Quinta.- **Admisión de candidatos.**

1.- Expirado el plazo de presentación de solicitudes, la Dirección de Musikene hará pública la relación de aspirantes admitidos y excluidos, en este último caso con indicación de las causas, en el tablón de anuncios del centro y en su página web.

2.- Serán causas de exclusión la presentación de la solicitud fuera del plazo establecido, la falta de presentación de los documentos a los que se refieren los distintos apartados de la base Tercera, y el incumplimiento de algunos de los requisitos especificados en la base segunda.

3.- Contra el acuerdo de exclusión podrán interponerse reclamaciones en el plazo de tres días desde la fecha de inserción del anuncio correspondiente en el tablón de anuncios de Musikene y su página web.

Seigarrena.-**Hautaketa-epaimahaiak**.

Hautaketa-organo bat eratuko da hautaketa-prozesu honetarako. Hautaketa-organoa hiru kidek osatuko dute. Oro har, Epaimahaiburua Kudeatzaile Akademikoa izango da, eta Idazkaria berriz Musikeneko Idazkari Akademikoa, edo halakorik ezean beraiek izendatutako pertsona, eta hirugarrena Musikeneko irakasle bat edo horretarako espreski izendatua izan den norbait, profesinoalki kualifikatua. Hautaketa organoaren kide bakoitzagatik ordezko bat ere izendatuko da.

Bere erantzukizunetan jarduteko, beharrezkotzat jotzen diren giza eta material baliabideak izango ditu hautaketa-organoak, Musikenek hornituta.

Eratu behar den organo bakoitzaren osaera zehatza Musikeneren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da bakoitzaren jarduera hasi aurretik.

Zazpigarrena.- **Hautaketa-prozesuaren egitura orokorra.**

Hautaketa-prozesua II. Eranskinean zehazten den proba baten bitartez garatuko da. 10 puntutako balorazioa izango du eta baztertzailea izango da. Halaber, hautaketa-organoak baloratuko du:

a) Curriculum vitae - gehienez 2 puntu
b) Irakaskuntza-proiektua – gehienez 8 puntu

a) Ataleko puntuazioa 4 ataletan banatuko, bakoitzari gehienez 0,5 pùntu eman ahal izango zaizkiolarik:

a1) ibilbide akademiko eta formatiboa
a2) irakaskuntzan jarduera
a3) ikerketan jarduera
a4) musikan jarduera edo jarduera artistikoa

Hautaketa-prozesua burutzeko proposatutako irakaskuntza-proiektuaren defentsa egingo da.

Zortzigarrena.- **Dealdiaren ebazpena**.

Epaimahaiaren deliberazioen ondoren, Idazkariak argitara emango du azken Akta, barne hartu behar duelarik derrigor hautagaien ordena puntuazioaren eta behin betiko proposamena. Idazkariak Musikeneko Zuzendaritzari igorriko dio, lehiaketan puntuazio gorena lortu dutenen kontratazioari ekiteko.

Sexta.-**Tribunales de selección**.

Para este proceso selectivo se constituirá un órgano de selección. El órgano de selección estará compuesto por un total de tres miembros. Con carácter general y como Presidente, actuará el Gestor Académico, y como Secretario, el Secretario Académico de Musikene o en su defecto personas designadas por ellos, y el tercero será un profesor de Musikene o persona cualificada profesionalmente designada expresamente para esta función. Por cada integrante del órgano de selección se designará igualmente un suplente.

Para el desarrollo de sus responsabilidades, el órgano de selección estará asistido de los recursos humanos y materiales que se estimen necesarios, y que serán puestos a su disposición por Musikene.

La composición concreta del órgano de selección se hará pública en los tablones de anuncios de Musikene y en su página web antes del comienzo de la actuación de los tribunales.

Séptima.- **Estructura general del proceso selectivo.**

El proceso selectivo se desarrollará a través de una prueba que se detalla en el anexo II, cuya valoración será de 10 puntos y tendrá carácter eliminatorio. Asimismo, el órgano selectivo valorará:

a) Curriculum vitae - hasta 2 puntos
b) Proyecto docente - hasta 8 puntos

La puntuación del apartado a) estará dividida a su vez en cuatro apartados, a cada uno de los cuales se les podrán atribuir hasta 0,5 puntos:

a1) historial académico y formativo
a2) actividad docente
a3) actividad investigadora
a4) actividad musical o artística

El proceso selectivo se completará con una defensa del proyecto docente propuesto.

Octava.**-Resolución de la convocatoria.**

Tras la deliberación del Tribunal, el Secretario hará pública el Acta final, que debe incluir necesariamente el orden de los candidatos según su puntuación y la propuesta definitiva. El Secretario la elevará a la Dirección de Musikene para proceder a la contratación de aquel que haya alcanzado la puntuación más alta en el concurso.

musikene

Bederatzigarrena.- **Deialdiaren garapena**.

Lehiaketaren egun zehatza argitara emango da egoki den aurrerapenaz Musikeneren web orrian eta irgarki-taulan.

Hamargarrena.- **Kontratazioa eta lanerako oinarrizko baldintzak.**

Honako prozeduraren bitartez hautatzen den izangaiaren oinarrizko lan-baldintzak honakoak izango dira:

a) Lan-kontratu mugagabea egingo zaie, indarrean dagoen lan-legeriaren arabera dagokien probaldiaren kaltetan izan gabe.

b) Irakaskuntza-agerraldiaren erregimena astekoa izango da, eta lanaldi erditik beherako dedikazioen kasuetan edo hala gomendatzen duten materia zehatzetan soilik aztertuko du Musikeneren Zuzendaritzak beste erregimen bat esleitzea.

c) Urteko Soldata gordina Musikenen irakasleentzat indarrean dagoena izango da. Lanaldi osoan aritzen ez diren irakasleek, lanaldiaren heineko soldata jasoko dute, euren benetako irakaskuntza-dedikazioaren arabera.

Novena.**-Desarrollo de la convocatoria.**

La fecha concreta del concurso se hará pública con la debida antelación en la página web y en los tablones de anuncios de Musikene.

Décima.- **Contratación y condiciones básicas de trabajo.**

Las condiciones básicas de trabajo del aspirante que sea seleccionado a través del presente procedimiento serán las siguientes:

a) El contrato se formalizará con carácter laboral indefinido sin perjuicio del correspondiente periodo de prueba que corresponda en función de la legislación laboral vigente.

b) El régimen de comparecencia docente será semanal, y sólo en los casos de materias específicas que así lo recomienden la Dirección de Musikene valorará la concesión de un régimen distinto.

c) El Salario bruto anual se corresponderá con el vigente en Musikene para el personal docente. Los profesores que no desarrollen la jornada de trabajo completa, percibirán su salario proporcionalmente, en función de su dedicación real a la docencia.

Patricio Goialde Palacios
KUDEATZAILE AKADEMIKOA/GESTOR ACADÉMICO

# I ERANSKINA / ANEXO I

## LEHIAKETA ZERRENDA / RELACIÓN DE CONCURSOS

| LEHIAKETA ZKIA<br>Nº CONCURSO | IRAKASGAIA(K)<br>ASIGNATURA(S) | ESPEZIALITATEA(K)<br>ESPECIALIDAD(ES) | ESKOLA ORDUAK (*)<br>CARGA LECTIVA (*) |
|---|---|---|---|
| 2 | Análisis de la música de jazz | Interpretación | 4 |

Horario de la asignatura a impartir: martes 9,30-13,30
Irakasgaiaren ordutegia: asteartea 9.30-13.30

(*) Orduak asteko / Se expresa en horas/semana.
Eskola-orduak alda daitezke, matrikulatzen diren behin betiko ikasle kopuruaren arabera eta Musikeneko irakaskuntza eskaitzaren antolaketaren arabera.
La carga lectiva puede oscilar con respecto a la cifra indicada, dependiendo del número definitivo de alumnos matriculados y de la organización de la oferta docente de Musikene.

# II ERANSKINA / ANEXO II

## HAUTAKETA PROBAREN EGITURA

Hautaketa-probak bi atal izango ditu:

1. Eskola bat ematea, gehienek 20 minutuz, jarraian datorren zerrendatik gai bati buruz, zozketaz aukeratua.
   a. Blues
   b. Rhythm Changes
   c. Standards
   d. Swing
   e. Bebop
   f. Hard Bop
   g. Cool Jazz
   h. Jazz contemporáneo

Jakintzat ematen da gaiaren planteamenduak "analisi musikala"ren ingurukoa izan behar duela soilik; hautagaiak instrumentu armonikoa erabiliz ematen dituen azalpenen adibideak jartzeko duen gaitasuna baloratuko da.
Gelan honako materiala egongo da: pianoa, anplifikatzaileak, arbela, HI-Fi ekipoa CD irakurgailuarekin.

2. Irakaskuntza-proiektuaren defentsa gehienez 10 minutuz. Defentsaren amaieran hautagaiek epaimahaikideek egin ditzaketen galderei erantzungo diete.

## ESTRUCTURA DE LA PRUEBA DE SELECCIÓN

La prueba de selección tendrá dos partes:

1. Impartir una clase, en un tiempo máximo de 20 minutos, sobre uno de los temas del listado que se detalla a continuación, elegido por sorteo.
   a. Blues
   b. Rhythm Changes
   c. Standards
   d. Swing
   e. Bebop
   f. Hard Bop
   g. Cool Jazz
   h. Jazz contemporáneo

Se sobreentiende que el planteamiento del tema debe hacer referencia estrictamente al "análisis musical"; se valorará la capacidad de los/as candidatos/as para ejemplificar su explicación, utilizando un instrumento armónico.
El aula estará dotada del siguiente material: piano, amplificadores, pizarra, equipo de HI-Fi con reproductor de CD.

2. Defensa del proyecto docente durante un tiempo máximo de 10 minutos. Al término de la defensa los/as candidatos/as deberán responder a las preguntas que pueda plantear el tribunal